



# OTSAILAK 14ko GREBAREN KENKETAREN AURREKO ERREKLAMAZIO MOTAK

## ➤ APIRILAREN 11 BAINO LEHENAGO EGINDAKO EREDUA SARTU BADUZU:

Kasu honetan, egindako tramitea **GORAKO ERREKUSTSOA** izan zen eta honen aurrean egiteko pausuak hauexek dira:

- Hiru hilabete itxaron.
- Administrazioak erantzuten badizu apuntatu data ondo eta **LEHEN BAIT LEHEN** jarri kontaktuan sindikatuarekin **2 hilabeteko epea soilik** baitugu Kontentzioso Administratibora jotzeko.
- Administrazioak ez badu erantzuten “Silencio Administrativo” moduan hartzen da jarri kontaktuan ere sindikatuarekin baina kasu honetan 6 hilabete daukagu Kontentziosora jotzeko.

## ➤ APIRILAK 11 BAINO BERANDUAGO SARTU BEHAR BADUZU:

Aurreko kasuan parte hartu ez baduzu, **ERREKLAMAZIO** bat egingo duzu (ikus eredu berria) eta aurreko a, b eta c pausuak jarraitu.

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Arabian	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Fermin Lasuen, 13 behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea,62 behea 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martzelo Zelaieta 75, 2-A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 Coursic Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org

**EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE**  
**ETA IKERKETA SAILARI**

**XXX** (**norberaren izen eta bi abizenak**) jaun/andreak, jakinarazpenari dagokionez, helbidea Bilboko Rekalde Zumarkaleko 62 behean izanik, Sail honetara aurkeztuz, **DIO**:

Gutun honen bidez, 2008ko martxoko nominatik kendutako (**kopurua**) ..... € itzul dakion ESKATZEN DUELA, ondorengo zioetan oinarrituz:

**BAT**.- Helegile honek, 2008ko otsailaren 14an, ez zuen bete bere lanaldia ..... **ordutan**.

**BI**.- 2008ko martxoko nomina jaso duenean konturatu da .....€ kendu diotela.

Jakin duenez, kenkari hau urteko ordainsari osoari urteko lanaldia zatitzearen emaitza da, erabili beharreko modulua orduko deskontua izanik.

Formula honek, egin beharreko kenketen artean, oporrak eta jai-egunak (kenketa horretatik baztertutako kontzeptuak) hartzen ditu. Era berean, erabili den formularen arabera, suposatzen da 8 lanordutako lanaldia betetzen duela, baina larunbata eta igandeak sartuz. Alegia, kalkulua egitean, larunbata, igande eta jaiegunetan 8 orduz lan egiten dela suposatzen da.

**HIRU**.- Erabili formulak urratzen du abenduaren 30eko 31/1991 Legea, Aurrekontu Orokorrena, (13/1996 Legeak, abenduaren 30ekoak, zerga eta administrazio, gizarte segurantzaren eta laneko neurriena, aldatua), zeinak ezartzen duen: “*funtzionarioak bete beharreko lanaldi arautua eta egindakoaren arteko aldeak, hileko konputuan, justifikatu ezean, dagokion soldata-kenketa proportzionala ekarriko du*”.

“Aipatu kenketan ezarri beharreko **ordu-balioa** kalkulatzeko, oinarritzat hartuko da funtzionarioak jasoko dituen **hileko ordainsari oso guztiak, dagokion hileko egun naturalekin zatituak, eta era berean, emaitza honi zatituko zaio funtzionarioak eguneko, batez bestez, bete behar duen ordu-kopurua**”.

Honela ba, soldatei kenketa egiteko erabili den formula ez da zuzena.

**LAU**.- Hau neure kasuari ezarritik, nire hileko ordainsari osoa .....**€takoa** da. Hortaz, batura hau 30 egunetan zatituz eta emaitza hau egun bakoitzean egiten den batez besteko orduengatik berriro zatituz, honen emaitzak adierazten digu batez besteko laneguna 4,06 ordukoa dela

(1496 ordu urteko/360 egun = 4,06 ordutako batez bestea) eta honek eragiten du lanera ez agertzeagatik kendu beharrekoa **guztira** .....€ dela.

Hots,

$$\frac{\text{Hileko lansari osoa} / 30 \text{ egun}}{4,06 \text{ ordu eguneko batez beste}} = \text{Orduko kenkaria}$$

Orduko kenketa x lanera ez agertze orduak = Kenkari osoa

..... **ordutan** lanera agertu ez nintzenez, ondoren adierazten den kalkuluaren arabera, deskontatu beharreko kopurua ..... €tako da.

$$\text{Orduko kenketa} = \frac{\text{Hileko lansari osoa} (\dots\dots) / 30 \text{ egun}}{4,06 \text{ ordu eguneko batez beste}} = \dots\dots \text{€}$$

Orduko kenketa = ..... € x ..... lanera ez agertze **orduak** = .....€ (kendura osoa)

**BOST**.- Aipatu hilari dagokion eta bidali nominan ikus daiteke ..... €tako kopurua kendu didatela. Hortik ondorioztatzen da kendutako kopurutik, Legez kendu behar zidatenetik, ..... €tako aldea dagoela.

Honengatik guztiarengatik, **SAIL HORRI**

**ESKATZEN DIOT**: gutun hau aurkeztua izanik eta 2008ko martxoko nominatik gehiegi kendu didaten ..... €tako kopurua eskatuz Erreklamazioa egin ondoren, erabakia har dezala, esandakoa kontuan hartuz, eta agindu dezala aipatu nominatik gehiegiz kendutako ..... €tako kopurua itzul diezadaten.

Hau guzti hau justiziakoa izanik, Bilbon, 2008ko apirilaren 18an.